



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBO NAGUSIA

Gida



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

KOKAPENA

Lakua II eraikina, beheko solairua, "Q" aldea
Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30 a 14:00

ARTXIBOAREN WEB GUNEA:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-6112/es>

HARREMANETARAKO TELEFONOAK

945 019 052 – 945 018 564

POSTA ELEKTRONIKOA

ejgvatxibo@euskadi.eus

Argitaraldia: 1., 2016ko martxoa. **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. **Ale-kopurua:** 100 ale. **Azaleko argazkia:** Mikel Arrazola. **Egilea:** M^a José Alfaro. **Itzultzailea:** IZO. **Diseinua eta maketazioa:** EkipoPO. **Lege gordailua:** VI 279-2016

AURKEZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia (EAE-HAAN) Ogasun eta Finantza Sailari atxikita dago eta funtzio bikoitza dauka:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren toki nagusiaren funtzioa betetzea.
- Administrazio Instituzionaleko artxibo nagusiek eta kudeaketa- eta bulego-artxiboek igorritako dokumentazioa jasotzea eta kudeatzea, behin artxibo horietan egoteko epea amaituta, bai eta Estatuko Administrazioak edo Foru Administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako eskuduntzei jarraituz igorritako dokumentazioa jasotzea ere.

HISTORIA

Uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuak, EAEko Herri Administrazioiko Artxibo Sistemaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, lege-estaldura ematen dio laurogeiko hamarkadatik funtzionatzen daraman sistema horri, hain zuzen lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eratu zenetik.

Artxibo Nagusiak, Liburutegi Nagusiak eta Argitalpen Zerbitzu Nagusiak egoitza, giza baliabide eta material berberak partekatzen dituzte eta Ogasun eta Finantza Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzari atxikita daude.



EAE-HAANaren gordailua Lakuan

Lehenbiziko eskuduntza-transferentziak 1980an egin ziren, eta ordutik aurrera Artxibo Nagusian dokumentuak gordailutze hasi ziren, are hura formalki eratu baino lehenago.

Artxibo Nagusia beti egon da bere erabiltzaile nagusiarengandik — Euskal Administrazioetik — hurbil, eta harekin batera haziz joan da. Hasieran Gasteizko Wellingtongo Dukea kaleko eraikineko behe-solairuan eta sotoan kokatuta egon zen.

1997an Donostia kaleko eraikin berrira eraman zuten, eta bertan

behe-solairuaren zati bat eta lehen eta bigarren sotoak hartu zituen. Hala ere, 2010. urtera arte 1992an abiarazitako kanpo-zaintzako sistemari eutsi zitzaion.

2010ean artxiboaren gordetegiaren eraikin berria eraiki zen, egoera horri amaiera emanez, eta Artxibo Nagusiak orduan lortu zuen zaintza-, kontserbazio- eta kontsulta-zerbitzu osoa emateko nahikoa azpiegitura.



EAE-HAANaren eraikin-gordailu berria (Gamarra)

Artxiboaren gordetegiaren eraikin berria Iñaki Aspiazu (1954-2014) arkitektoak egin zuen eta hura ere Gasteizen kokatu zen, 9.582 m²-ko lurzatia hartuta, 6.011 m²-ko azalera eraikigarriarekin.

Zerbitzu osoa automatizatua duen logistika-gune handia da, eta, bertan, bi robot korridoreetan zehar gidatzen dituen programa informatiko batek ibilbideak optimizatu eta dokumentu-kaxen kokalekua kudeatzen du.

Eraikinaren ezaugarriak ezagutzeko bisitaldi birtuala gomendatzen da:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus>

ARAU-ESPARRUA

Artxibo Nagusiaren funtzioak eta jardun-eremuak ondoko araudiaren arabera araututa daude:

- 7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Kultur Ondareari buruzkoa
- 232/2000 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena
- 174/2003 DEKRETUA, ekainaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren artxibo-sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa
- 2005eko abenduaren 19ko AGINDUA, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko artxibo-sistemaren arautegiari buruzkoa.
- 2005eko abenduaren 19ko AGINDUA, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena, dokumentuak identifikatzeko eta baloratzeko prozedura, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioko Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordearen (COVASAD) funtzionamenduari buruzkoa.

Araudi hori guztia Euskal Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren ondoko argitalpenean jasota dago:

Artxiboak antolatzeko araudia / Eusko Jaurlaritza = Normativa sobre organización de archivos / Gobierno Vasco. (2006). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

- 2010eko abenduaren 13ko AGINDUA, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Herri Administrazioko Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordeak (COVASAD) industria-, merkataritza-, kontsumo- eta turismo-arloko kontserbazio-egutegiak onartzen dituena.
- Agindua, 2011ko urriaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, argitalpenen, erreproduzioen eta dokumentazioen kopiak egiteagatiko prezio publikoak ezartzeko dena.
- 192/2013 DEKRETUA, apirilaren 9koa, Ogasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.

FUNTSAK

Artxibo Nagusian hiru dokumentu-mota gordetzen dira:

- Dokumentu eta espediente historikoak
- EAEko Administrazio Orokorrek sortutako dokumentuak eta espedienteak, hots, kudeaketa-artxiboek eta Administrazio Instituzionaleko artxibo zentralek bidalitako dokumentuak.
- Euskal Autonomia Erkidegoari emandako eskumenen ondorio, Estatuko Administrazioak eta Foru Erakundeetako Administrazioek bidali duten dokumentazio.

Dokumentaziora jotzeko eskubidea indarreko legeriak agindutakoaren arabera eta Agiritegiak ezarritako protokoloari jarraiki gauzatzen da.



Bandeja con cajas normalizadas.

ERABILTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusian (EAE-HAAN) dauden funtsak edozein pertsona fisiko edo juridikoak kontsulta ditzake, beti ere indarraldiko legeriak ezarritakoarekin bat badator eta Agiritegiak ezarritako protokoloari jarraitzen badio.

ZERBITZUAK

INBENTARIOAREN KONTSULTA

Artxibo Nagusiak herritarren eskura jartzen du EAE-HAANan gordailututako funtsen inbentarioa kontsultatzeko aukera. Kontsulta Online egin daiteke, bi estrategia jarraituz:

KONTSULTA ARRUNTAK

Aukera ematen du dokumentazioa testu libre bidez bilatzeko, eta, egokia iritzi izanez gero, daten arabera muga daiteke.

KONTSULTA AURRERATUAK

Aukera ematen du kontsulta hainbat iragazki erabilita egiteko:

- **Sailkapen-koadroa.** Eremu horrek aukera ematen dio erabiltzaileari lupa baten bidez bilaketa zer funtsetan, ataletan edo sailetan egin nahi den aukeratzeko.
- **Data-tartea.** Espedienteen hasierako eta amaierako datak. Data jakin bateko informazioa aurkitu nahi baduzu, nahitaezkoa da «noiztik» eta «noiz arte» eremuak betetzea. Era berean, «egutegia» «morroia» erabil daiteke.
- **Espediente zenbakia.** Datu hori ezagutzen bada, hura aurkitzeko modurik onena da.

- **Unitate ekoizlea.** Eremu horrek morroi bat dauka egitura organikoaren elementuen artean bilatu nahi den elementu jakin bat aukeratu ahal izateko.
- **Tokiak.** Espedientearekin lotuta dauden udalerriak dira. «Morroi» bat daukagu nahi den udalerria bilatzeko.

ERABILTZAILEEN ERREGISTROA

Erabiltzaileen erregistroaren bidez herritarrek aukera izango dute:

- Dokumentuak paperezko formatuan kontsultatzeko, betiere konfidentzialtasun-mailak baimentzen badu, Artxiboak ezarritako protokoloa jarraituz beti.
- Dokumentuak erreserbatzea eskatzeko, Artxibo Nagusiaren barruan kontsultatu ahal izate aldera.
- Iradokizunak egiteko eta horiei emandako erantzunak kontsultatzeko.

Edozer unetan aldatu ahalko dira norberaren datuak (etxebizitza, posta elektronikoa, telefonoa, e.a. aldatuz gero).

Herritarrek Artxiboaren atariaren bidez edo han bertan, Artxiboaren barruan, erabili ahalko dute zerbitzu hori.

Hauek dira Artxiboaren atariaren bitartez

erabiltzaileak erregistratzeko jarraitu beharreko urratsak:

- Norberaren datuak ala laneko datuak eman nahi diren aukeratu.
- Galdetegiko eremuak bete. Nahitaez bete beharreko eremuak (*) zeinuaz markatu dira.
- «Eskaera bidali» botoia sakatu.
- Datuen zuzentasuna berrikusi.
- «Eskaera bidali» botoia sakatu.
- Artxibo Nagusiak eskaera baliozkotu eta emandako helbide elektronikoan behin betiko alta jakinarazi arte itxaron.

Informazioa aurrez aurre kontsultatu behar baduzu, Artxibo Nagusira joan beharko duzu, Donostia kalea, 1 (Lakua) helbidean, Gasteizen, eta han zure burua NANaren bidez identifikatu beharko duzu.

DOKUMENTUEN ERRESERBA

Artxibo Nagusiak eskaintzen duen zerbitzu hori etekina atera nahi dutenek erregistratuta egon beharko dute. Behin erregistratuta, beharrezko duen dokumentazioa eskatu ahalko du, betiere dokumentazio horretarako sarbidea indarrean den legezkotasunean kokatzen bada.

Interesdunak «Funtsak kontsultatzeko eskaera» inprimakia bete beharko du, bat

kontsultatu beharreko espedienta bakoitzeko. Eskatutako dokumentazioa prest dagoenean, Artxiboa eskatzailearekin harremanetan jarriko da, kontsultarako data bat zehazte aldera.

BILAKETA PERTSONALIZATUAK

Artxibo Nagusiak gordailutzen dituen funtsen inguruko orientazioko eta modu pertsonalizatuan informazioa bilatzeko zerbitzu bat eskaintzen die herritarrei. Zerbitzu horrekiko interesa duten pertsonak Artxiboarekin harremanetan jarri ahalko dira telefono, posta arrunt, posta elektroniko edo fax bidez. Kontsultaren xedea modu argi eta zehatzean azaldu ondoren, teknikariek bilaketak gauzatuko dituzte Artxiboaren deskribapentresnen bidez, betiere kontsultatu beharreko elementua indarrean den legezkotasunean kokatzen bada. Erantzuna kontsultaren bide beretik igorriko da.

Zerbitzu hori erabiltzeko aukera izateko, herritarrek Artxibo Nagusiko erabiltzaile gisa erregistratu beharko dute aldez aurretik.

DOKUMENTAZIORAKO SARBIDEA

Administrazioaren Artxibo Nagusian gordailututako funts historikoetarako sarbidea librea eta doakoa da herritarrentzat.



Kontsulta gela

Administrazio-dokumentuetarako sarbidea araudiak ezarritakoaren arabera da:

- Espainiako konstituzioa, 1978
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. (Legea Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, 2016ko urrian).
- 232/2000 Dekretua, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena.

Artxibo Nagusian gordailutako dokumentuetarako sarbidea Artxibo Nagusian bertan egin beharra dago, Donostia kalea, 1 (Lakua) helbidean, Gasteizen.

Kontsulta Aretora idazketa-tresnekin eta ordenagailu eramangariarekin / tabletarekin sartu ahalko da soilik. Hortaz, ezingo da bertara bestelako elementurik sartu, hala nola karpetak, poltsak, telefono mugikorrak (isilarazi eta aretoko langileei eman beharko zaizkie), e.a.

Dokumentazioaren barne-ordena errespetatu beharko da eta ezingo da hura aldatu.

Lan-saioa dokumentuak kontsultatzen bukatu gabe amaitzekotan, horiek hurrengo egunerako erreserbatuko dira.

ERREPROGRAFIA

Artxiboak dokumentuak hainbat euskaritan eta tamainatan erreproduzitzeko zerbitzua eskaintzen du (pdf edo jpg formatuko dokumentuak digitalizatzea, hainbat tamainako fotokopiak, argazkiak), indarrean diren legeek eta arauak ezarritako tarifen eta ordainketa-bideen arabera.

Erreprodukzioaren eskaera xede horretarako eskuragarri dauden inprimakien bidez egingo da: “Dokumentuak erabilera pribaturako erreproduzitzeko eskaera” edo “Dokumentuak argitaratzeko edo zabaltzeko erreproduzitzeko eskaera”. Indarrean diren legeak eta arauak betetzeak baldintzatuko du erreprodukzioa, eta edonola ere zerbitzuburuak onartu beharko du.

LIBURUTEGI OSAGARRIA

Artxibo Nagusiak eta Liburutegi Nagusiak egoitza, giza baliabide eta material berberak partekatzen dituzte, eta bigarren horrek legegintzari, administrazioari eta Euskadiko historiari buruzko bilduma handia du. Era berean, artxibaketa-tekniketan espezializatutako material bibliografiko garrantzitsua dauka.



Biblioteca auxiliar

BISITALDI GIDATUAK

Ekainaren 9an, Artxiboen Nazioarteko Egunean, Euskadiko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusiak ateak zabaltzeko egun berezia antolatzen du, eta Artxiboan gordailutako dokumentazioaren zati handi bat gordetzen den eraikina bisita daiteke.

Bisitaldi gidatuak antolatzen dira euskaraz eta gazteleraz, eta 45 minutu irauten dute. Pertsona interesdunek Artxiboarekin harremanetan jarri beharko dute ejgvartxibo@euskadi.eus helbide elektronikoan, eta azalpena zer hizkuntzatan jaso nahi duten adierazi beharko dute.

FUNTSEN ANTOLAKETA

SAILKAPEN KOADROA

EAEKo Herri Administrazioaren Artxibo Nagusian funts dokumentalak antolatzeko era organiko-funtzionala da eta bost mailatan dago egituratuta: funtsa, azpifuntsa, atala, azpiatala eta dokumentu-segida.



Funtsak bat datoz Erkidegoko Arministrazioari egotzitako gaitasun-arlo handiekin. Bi letrarekin kodetzen dira (adibidez: CU-KULTURA).

Azpifuntsak funts baten zatiak dira, gainerakoarengandik bereizten dira eta nolabaiteko autonomia-maila duten mendeko administrazio-entitateei dagozkie. Hori ere bi letrarekin kodetzen dira (adibidez: OS-OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuak).

Atalek gaitasun-alor baten barruko alor funtzionalak identifikatzen dituzte. Bi digiturekin kodetzen dira (adibidez: OS.03-OSPITALEKO ARRETA).

Azpiatalak sortzen dira atalaren entitateak beharrezko egiten badu. Letra bakarrarekin kodetzen dira (adibidez: OS.03.F-BASURTUKO OSPITALEA [Bilbo]).

Dokumentu-segidak administrazio-funtzio edo -jarduera bat gauzatzean sortutako dokumentuak eta/edo espedienteak biltzen ditu. Hiru letrarekin kodetzen dira (adibidez: CU.06.PFC-Sorkuntza-lantegiak programarako laguntzak; OS.03.F.DHB-Basurtuko Ospitaleko Dokumentazio historikoa).

EGITURA ORGANIKOA

Eusko Jaurlaritzaren egitura organikoa ezagutzea ahalbidetzen du, egungoa eta historikoa, hainbat sail, kontseilaritza, kontseilaritzaorde eta abarretan zehar nabigatuta.



**EUSKO JAURLARITZA
ARTXIBOA**



**ARCHIVO
GOBIERNO VASCO**